

ARRASATE

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 14a / 589. zenbakia



Kaparra

CAPPARIS SPINOSA L.

Anemia, artritis, apetiturik eza,...

Osagai aktiboak: pektina, glukosidoa, saponina eta pareta kapilarrak berritzen dituen flabonoide bat.

Propietateak: diuretikoak, espasmoen kontrakoak, tonikoak,...

Erabilerak: dekokzioak, hautsak; sukaldaritza.



Laisarda

ERODIUM CICUTARIUM L.

Beherakoa, odoljariora, gernu-mina,...

Osagai aktiboak: flabona, esentzia-olioa, taninoak, kafeina eta saponina.

Propietateak: garbigarriak, diuretikoak, lehorgarriak, hemostatikoak, bizigarriak.

Erabilerak: infusioak, dekokzioak, ardo sendagarriak.



Kamamila

MATRICARIA CHAMOMILLA L.

Katarroa, konjuntibitisa, hemorroideak,...

Osagai aktiboak: azido salizilikoak, potasioa, C bitamina, fosforoa, burdina, esterola.

Propietateak: antiseptikoak, eupeptikoak, antiespasmodikoak, zauri-belarrak, goragarriak.

Erabilerak: infusioak, kataplastmak, konpresak, dekokzioak.



Mireoa

MYRTUS COMMUNIS L.

Bronkitisa, katarroa, gastritisa,...

Osagai aktiboak: taninoak, erretxina, esentzia eta osagai mingotsak, C bitamina, eta azido zitrikoa, malikoa eta mirtoloa.

Propietateak: antiseptikoak, lehorgarriak, balsamikoak eta hemostatikoak.

Erabilerak: tisanak, dekokzioak; kosmetika.



Malba zuria

ALTHAEA OFFICINALIS L.

Anginak, katarroa, insomnia,...

Osagai aktiboak: C bitamina, pektina, sakarosa, glukosa, almidoia, azido malikoa, betaina, koipea.

Propietateak: biguntzaileak, libragarriak, diuretikoak, espektoratzaileak, digestiboak.

Erabilerak: kataplastmak, beratzeak hotzean, infusioak, xarabeak, pomadak.



Bioleta usainduna

VIOLA ODORATA L.

Bronkitisa, katarroa, sukarra,...

Osagai aktiboak: saponinak, konposatu salizilikoak, bioleta-esentzia, biola-emetina edo biolina.

Propietateak: espektoratzaileak, izerdiarazleak, goragarriak, freskagarriak.

Erabilerak: infusioak, tisanak, egosteak.

Sendabelarrak ezagutzen

Domekan, sendabelarrak batu eta erakusketa egingo dute, AEDk antolatuta

ORAIN ETA HEMEN: HIPERAKTIBOTASUNA BERBAGAI/6 • KIROLA: USO TIROKETA TXAPELKETA/10

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA / Ze pentsetan jatzu datorren asteko huelgie?



JOSE MARI SANTIAGO
Langillie




ARANTZA DIAZ DE GEREÑU
Langillie



ARANTZA GARCÍA
Langillie



GANIX LASA
Ikaslie



FERNANDO AMOZARRAIN
Langillie



JULIA GUTIÉRREZ
Langillie

Guk 19xen egin biher dogu. Lehenago be egon die huelgie egitteko arrazoi haundixaguek. Uste dot Madrilguek inposatu gura dauela, eta bestiek dei euskaldunago bat egin gura daue.

Langabezia Legiaren erreformie apur bat gogorra dala pentsetan jat. Dana dala, nik uste dot gehixenek ez dauela bat egingo huelgiekin. Deialdi bakarria izen biherko litzake.

Huelgiekin ados nago. Zerbaitegin biher da erreformaren kontra. Baiñe egun bakarrien izen biherko litzake, indar haundixague egitteko. Uste dot sindikatuek ez diela ados jarten.

PP gure dauena egitten dabil; pentsamendu desberdiñek egon lekie eta huelga egun desberdiñek egotia ados nago. Jakiñe, Langabezia Legiaren erreformaren kontra nago.

Oso txarto pentsetan jat egun bi egittie, ez dago lanik eta ondiokan be egun bi jai, larregikue pentsetan jat. Huelgiekin ados nago, baiñe neure ustez, danok bate-
ra juen biherko gitzake.

Huelgiekin ados nago. Baiñe egun bi egittie ez jat ondo pentsetan. Neuk, adibidez, taberna baten egitten dot lan eta gatxa da antolaketie; seguruenik, egun bixetan egingo dogu huelgie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK 70EKO HAMARKADAKO JAIJA Joan den zapatuan herriko gazte batzuek gaztetxean antolatu zuten 70eko hamarkadako jaiak izugarrizko arrakasta izan zuen. Jende dezente mozorrotu zen, gaztetxea lepo bete zuten, kanean giro polita egon zen, eta, gainera, hama-bi taldek jo zuten arren, agindutako ordutegia ondo bete zuten, ez zuten batere luzatu. Halaxe jakinarazi digute zenbait herritarrek.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

Grebarako deialdia

ELAk eta UGTK, nor bere aldetik, grebarako dei egin dute, ekainaren 19rako eta 20rako.

ORAIN ETA HEMEN / 5

Noizko? taldea eratu dute

Martitzenean, hainbat herritar ezagunek Arrasateko Noizko? taldearen aurkezpena egin zuten.

KULTURA / 12

Arrasate Musikal

Ikasturtea bukatutzat emateko, Arrasate Musika-
lek hainbat kontzertu antolatu ditu.

ASTEKODATUA

28

HERRITARREN %28K EUSKARAZ EGITEN DUTE BERBA

SEI soziolinguistika elkarteak kaleratutako datuen arabera, arrasatearren %28k egiten dute euskaraz. Udaleko Euskara teknikari Joxe Felix Díaz de Tuestak halaxe egiaztatu du.

BESTEKEESANA

“Salmentek gorantz egin dute eta ekitaldi ekonomikoa itxi orduko, bost mila milioi eurotako salmentak espero ditugu. (...)

Aurten, Eroski Taldeak egoitza berriak zabalduko ditu eta horretarako 420 milioi euro aurreikusi ditugu. (...) Eroski Taldea Espainiako Estatuan hedatuko da. Europako merkatua baztertu egin dugu. Merkatu hori heldua da, oso mugatua, marjina oso txikiak uzten ditu eta lehiakide oso indartsuak daude. Horregatik, hobeen ezagutzen dugun lurraldean lan egingo dugu. (...) Guk ez dugu salmenta gune handiak asteburuetan zabaltzeko proposamenik egin behar. Ez dugu asteburuetan lan egin gura, eta ez dugu egingo, lehiakideek behartzen ez bagaituzte”.

AGUSTIN MARKAIDE
‘Deia’/02-06-11

HERRITARRENBERBAK / Itziar Ezpeleta



Gauza guztietan oreka aurkitu

Nire azkeneko eta gaurko artikuluan, neure ustez daukagun arazo larrienetako bat azaldu gura dut, eta neurri baten gure eskuetan ere badagoena. Ea ulertzen didazuen. Gaur, pil-pilean dagoen “alderdien legea” delakoa aipatu gura dut, eta horrek euskaldun guztiok inplikatzeko gaitu.

Azkeneko boladan, gazteekin berba egiteko aukera izan dut, oso aberasgarria izan da niretzat eta eurekin identifikatu naiz. Landu genuen gaietako bat natura izan zen. GOIENKARIAN argitaratutako Japoniako belar txarren gaineko artikulua berbagai izan genuen, haien sustraiak hemezortzi metrotakoak izan daitezke. Duela hainbat urte ere, geranioak suntsitzen zituzten tximeleta batzuk agertu ziren. Garapenarekin, nahiz eta gauza batzuetan hobera egin dugun, gizakiak askotan hanka sartu egin du. Naturaren oreka apurtzen

gabilta. Japoniako belar txarrak oreka lortzeko beste zerbait edukiko du, eta Afrikan geranioek ere edukiko dute antzeko zerbait.

Hari horri jarraituz, belaunaldiak joan eta etorri, Euskal Herriak bere droga propioa dauka, alkohola. Haren

eraginak ezagutzen ditugu, baina zerbait ospatzen dugunean mahai baten inguruan ardo on batekin elkartzen gara, eta une onak gozatu egiten ditugu familiakoekin eta lagun artean.

San Juanak ere badatoz. Merkatuak

gure gazteei ondo pasatzeko beste drogak batzuk eskaintzen dizkie. Badaukate horren inguruko informaziorik? Askatasunez kontsumitzen dute? Gazte batek Askagintzak drogei buruz informatzeko atera duen liburua oparitu dit. Liburua sei eurotan saltzen dute eta aurreiritzi barik idatzita dago. Gazte, informatu zaitetz, zure bizitzaren oreka jokoan dago eta! Ondo pasatu San Juanak, eta gozatu, ligatu...

“Gazte, informatu zaitetz, zure bizitzaren oreka jokoan dago eta! Ondo pasatu jaiak, eta gozatu, ligatu...”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
Irizar, Erguin, 11. 943 79 12 39
- ZAPATUA, 15**
Amezua, Santa Marina, 32. 943 79 09 74
- DOMEKA, 16**
Zabala, Zarugalde, 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 17**
Ruiz, Maala, 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 18**
Español, Araba etorb, 17. 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 19**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 20**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78-71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa

- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78,44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterrón. 943 77 01 05

MEZAK

| | |
|---|--|
| San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) | San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) |
| Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna) | Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) |
| Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz) | Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza 19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) | Domeka 12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

NAGUSIEN DANBORRADA
Nagusien Danborradako entseguak astelhehenetan eta eguaztenetan egiten dituzte, 20:30ean, San Viator Ikastolan.

ILEGALIZAZIOAREN AURKA
Ekainaren 22an, Arrano elkarteak, ilegalizazioaren aurkako bertso bazkaria egingo dute. 12:30ean, triki-poteoa egingo dute, eta 14:30ean, Arrano elkarteak, Jokin Labaien, Manex Agirre, Enaitz Alustiza eta Ibarrako Aitor ariko dira. Txartelak, Hire eta Arranon salgai.

MAC REAREN ANTZEZLANA
Gaur, egubakoitza, 22:45ean, Jai Zale tabernan, Mac Rea komikoak *Sexo, drogas y rock&roll* lana antzeztuko du.

HAURREN DANBORRADA
Bihar, zapatua, 19:00etan, Umeen Danborrada egingo dute Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta.

ANTZERKIA MONTEIRONEN
Arizmendi Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasturteari bukaera emateko, martitzenean, 18:00etan, Hiruki antzerki taldeak emankizuna egingo du, doan, Monterron parkean. Umeei diploma bana emango diete.

AEDren AGENDA

DRAGOI JANERAKO LAGUNTZA
Ekainaren 24an, Dragoi Janerako laguntzaileak behar dira. Deitu AEDra, eta aukeratu goizez, arratsaldez edo gauz lan egitea.

SENDABELARREN RALLYA
Domekan, Sendabelarren rallya eta erakusketa antolatu ditu AEDk. 08:30ean da hitzordua, Seber Altube plazan.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Uarkapeko lanak Azatzako en zain


Uarkapeko etxebizitzaren erosleek Azatzako en erantzunaren zain zeuden behin betiko arazoarekin bukatzeko. Udala, Irgala enpresa eta Uarkapekoak prest zeuden erdibideko komenio bat sinatzeko. Azatzako bizilagunek, ordea, ehun milioi pezeta eskatu zizkieten.




BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elempuru

“Eskolantia”

Ikaslea (adinekoek, eta ironiaz, inoiz esana).
—An, badatoz gure eskolantia pe.
—Nere denporan enintzuan oso eskolante ona izan.



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Agur esan behar diegu kolaboratzaileei

Datorren astean bukatuko dira kolaboratzaileek gauetan egiten dituzten saioak. Astelhehenetik zapatara bitartean eskaintzen ditugu kolaboratzaileen saioak, baina hemendik aurrera tarte horietan musika jarriko dugu. Kolaboratzaileen saioak urrian itzuliko dira Arrasate Irratiaren uhinetara, eta zuetariko norbaitek saioaren bat egin gura badu, horretarako aukera izango du. Interesatuok jar zaitezte harremanetan, duzuen asmoen berri emateko.

Kooperatiben internazionalizazioa

Angel Mari Errasti ekonomilari aretxabaletarrak doktorego tesia aurkeztu berri du. Bereziki, MCCko kooperatibetan oinarritu da tesia egiterakoan, eta kooperatiben internazionalizazioa izan du aztergai. Angel Marirekin izandako elkarrizketa berriro izango duze entzungai zapatuan eta domekan. Domekan, Araba Euskaraz ospatuko dela eta, Iñaki Oregirekin eta Iñaki Lasarekin egindako elkarrizketa berriro eskainiko dugu.

HAUGIROA!

| | |
|----------------------------------|---------------|
| MINIMOA Egubakoitza, 7 | 7 °C |
| MAXIMOA Martitzena, 11 | 28 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m²) | 35,6 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|----------------|-------|-------|-----------|
| Eguaztena, 5 | 16 °C | 11 °C | 11,3 l/m² |
| Eguena, 6 | 19 °C | 8 °C | 0,2 l/m² |
| Egubakoitza, 7 | 16 °C | 7 °C | 19,6 l/m² |
| Zapatua, 8 | 13 °C | 11 °C | 1,3 l/m² |
| Domeka, 9 | 20 °C | 10 °C | 1,2 l/m² |
| Astelehena, 10 | 20 °C | 11 °C | — l/m² |
| Martitzena, 11 | 28 °C | 7 °C | — l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**
21:00 MIR
- MARTITZENA**
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**
21:00 Gailurretik/Mikelenea
- EGUBAKOITZA**
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Santa Barbaratik harriak botatzen

Joan den martitzenean, zenbait mutikok Santa Barbara parketik tamaina handiko harri bat bota zuten Otalora kalera. Eguerdiko ordu bi eta erdietan gertatu zen. Harriak Bilboko matrikuladun Opel Zafira urdin batean jo zuten, eta atea erabat zarpaildu zion. Hori gutxi izango balitz, momentu hartan, zenbait emakume eta haur txiki paseatzen zihozten.

Aurreko baten, toki berean aparkatuta zegoen auto bati kristala apurtu zion beste harri batek. Hortaz, ez da horrelako zerbait gertatzen den lehenengo aldia.

Euskararen erabilera Arrasaten

Urtero moduan, Arrasateko udalak euskara kalean zenbat erabiltzen den neurtzeko ikerketa egin du. AEDren laguntzarekin datuak bildu eta emaitzak atera dituzte dagoeneko. Emaitza horien arabera, Arrasaten euskararen erabilera gaur egun %37koa da. Zahar, heldu, gazte eta haurrei egindako ikerketak, behintzat, hori dio.

Dena dela, Euskara Sailak, datu horri baino gehiago, azken 14 urteotan Arrasateko euskararen erabilera izan duen bilakaerari eman dio garrantzia.

Alderdi Sozialistaren kritikak

Arrasateko PSE-EEko kideek azken egunetako gertakarien gainbegiratu egin dute, eta Mondragoeko gainerako alderdien lana kritikatu dute. EUDEL-en mozioari dagokionez, Arrasateko Alderdi Sozialistako kideek jakinarazi nahi diete herritarrei Batasunak izan ezik, gainerako alderdi politikoek mozioaren alde bozkatu zutela.

Marcos Vitoria alderdi sozialistako kideak gaineratu du osoko bilkura horretan irainak eta mehatxuak entzun behar izan zituztela, eta talde abertzaleek ez zutela ezer egin.



Ikastolaren Eguna ospatu zuen Arizmendik

Joan den zapatuan, Arizmendi Ikastolak Ikastolaren Eguna ospatu zuen Ferixalekuan. Ospakizunak goizeko hamar eta erdietan hasi ziren, eta herri kirolak, puzgarriak, lantegiak, kart autoak eta beste hainbat ekintza ere egin zituzten gaztetxoek gozamenerako. Eguna aproposa bikain pasatzeko.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Elkarlana

Joan den astean, herrian Noizko? izeneko taldea aurkeztu zuten. Talde horrek aspaldian moteldutako aldarrikapen batzuk berpiztu eta gizarteratu gura ditu. Hain zuzen ere, legeak aurreikusten duen bezala, espetze zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoendako baldintzapeko askatasun eskubidea eskatzeko bildu dira. Talde

horretan herriko hainbat alorretan lanean dabilen jendea dago. Legea betetzea beharrezko ikusten dute, eta horrelako pausoak ematen hasteak Euskal Herriak bizi duen arazoa konpontzeko onuragarriak direla uste dute.

Egia esanda, duela urte batzuk, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak eta gaixotasun

larriak dituzten presoak askatzeko ekimen mordoak egin zituzten eta ekimen horiek euskal gizartearen zati handi baten babesa jaso zuten. Zorritzarez, elkarlan eta konpromiso garai hura apurtu eta bakoitzak bere aldetik jo zuten.

Egun bizi ditugun garaiak ez dira onenak, eta batasun eta elkartasun handiagoaren beharra dagoen arren, jendeak horri aurka egiteko konpromiso handiagoa jartzea zailagoa dirudi.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

JON APERRIBAI ARRASATEARRA BIGARREN GERATU ZEN DEBAGOIENENKO II. TRIATLOIAN

Jon Aperribai arrasatearrak joan den urteko triatloian egindako marka hobetu du aurten. Joan den urtean, laugarrena izan zen arrasatearra, eta aurten, bigarren iritsi zen helmugara. Arrasatearra Urkulun ez zen aurreko postuetan irten, baina bizikleta hartu orduko aurrean zituen guztiak aurre-

ratzen hasi zen. Bizikleta utzi eta korrika hasitakoan, Jon Aperribaik Garikoitz Etxebesteri -ordura arte bigarren postuan izandakoa- aurre hartu zion. Triatloiko irabazlea Héctor Llanos izan zen, eta Jon bigarren iritsi zen, minutu eta erdira. Aipagarria, baita ere, Zuhaitz Ezpeletaren lana./X.U.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK
T.F. 943 711768

ELKARRIZKETA

MIKEL OLANO / PSIKOLOGO KLINIKOA

“Hiperaktibotasun gaitza betiko da, eta ikasi egin behar da gaitz horrekin bizi izaten”

ARRASATE IRRATIA

Mikel tolosarra da, baina lan kontuak direla eta askotan egoten da Arrasaten. Mikelek ondo baino hobeto ezagutzen du uste baino gertuago dugun gaitz bat: hiperaktibotasuna. Gaitz horren gainean mintzatu gara Mikelekin.

Zelan definituko zenuke hiperaktibotasuna?

Izenak berak ondo definitzen du gaitza, baina beste sintoma nabarmen batzuk ere izaten dira: autokontrolik eza eta autoestimua eta arreta falta. Sintoma horiez gain, umea hiperaktiboa izaten da, eta hori da azkarren nabarmentzen den sintoma.

Jaiotzez sortzen den gaixotasuna da hiperaktibotasuna?

Bai, badirudi genetikak berebiziko garrantzia duela gaitz horretan. Oraindik ez dago baieztatuta, ikerketak egiten ari dira, baina badirudi gaitza geneen bitartez transmiti daitekeela; hau da, herentziaren bitartez transmiti daitekeela.

Kezkatzeko moduko gaitza da?


Gustatuko litzaidake ezetz esatea, baina, zoritxarrez, ezin dezaket hori esan. Lehenik eta behin, gaitz kronikoa dela esan behar da, hau da, bizi osorako gaitza da, betiko. Gaitz horrekin bizi izaten ikasi egin behar da, bestelako gaitzekin moduan. Gaitz hori daukan pertsona gaztetatik trebatuz gero, bizimodu normala egin dezake.

Zelan antzematen da ume bat hiperaktiboa dela?

Umeek denbora luzean eskolan pasatzen dute, eta gaitzaren sintomak eskolan argiago nabaritzen dira. Hainbat zailtasun izaten dituzte eskoletan. Gainerako ikaskideekin ez dira ondo moldatzen, eskoletan gaizki portatzen dira, ez dute arretarik jarritzen, asko kostatzen zaie lanak egiten hasi eta bukatzea... Irakasleak izaten dira aurrenak arazo horiek antzematen.

Edozelan ere, ume geldiezin batek ez dauka zertan hiperaktiboa izan, ala?

Ez, ez. Kontu bi horiek ondo bereiztu behar dira. Ume hiperaktibo bat beti da hiperaktibo; hau da, ume bat bolada baten gelditu ezinik eta aztoratu samar ibiltzen bada ere, ez dauka zertan hiperaktiboa izan. Une konkretu baten izan dezakeen arazoaren erantzuna baino ez da hori. Ume hiperaktibo bat, ordea, beti da hiperaktibo; beti izango ditu hiperaktibotasunaren sintomak.



UBANE MADERA

Ume hiperaktibo bati beti falta izango zaio autokontrola.

Hala ere, umeek txikitik autokontrola izatea zaila izango da, ala?

Bai, umeendako ez da erraza izaten txikitik euren burua kontrolatzea, baina gura dutenean ez dute arazorik izaten. Ume hiperaktiboek zailtasun handiagoak izaten dituzte euren pentsamendu eta portaerak kontrolatzeko, eta ahalegintzen badira ere, askotan ez dute lortzen.

Tratu bereziren bat eman behar zaie gaitz hori daukaten umei?

Gaitzaren diagnostikoa 6-7 urte inguru dituztenean egitea komeni da. Lehenago ez da komeni, zaila izaten da eta gaitz hori daukan edo ez sumatzea. Lehenik eta behin, neurologoarengana edo psikiatrarengana eramango nuke, beste gaitzen bat ote duen ikusteko. Diagnostikoa baieztatuta dagoenean, bai neurologoak bai psikiatrak ere medikazioa ezarriko luke; behar izanez gero, jakina. Medikazioak mesede egiten die, estimulatuzailea da eta.

Hiperaktibotasuna ADAI elkartean lantzen duzue, lehen

“Sintomak gainditzeko egiten dugu lan. Umeak bizimodu normala egin dezake”

“Gaitza onartzea oso garrantzitsua da. Gaitza onartu eta gero lan egitea errazagoa da”

“Umeak bere burua kontrolatzen ikasi behar du. Horretarako, bestean laguntza behar du”

AHIDA moduan ezagutzen genuena. Zein da, zehazki, zure lana?

Elkarte horretan hiperaktibotasuna daukaten umeekin eta euren gurasoekin egiten dugu lan. Umeekin bakarkako psikoterapia egiten dugu. Psikoterapiako eskoletan lehen aipatutako hiru sintomak menderatzeko egiten dugu lan: autokontrola, autoestimua eta arreta falta. Horrez gain, umeak integrazio hobea izan dezan egiten dugu lan, bai eskolan baita gizartean ere.

Zelan ikasten da norberaren burua autokontrolatzen?

Umeak ikasi egin behar du pentsamenduak kontrolatzen, eta hori pausoz pauso egin beharrekolana da. Gaitz hori ez duenak, inkontzienteki, baina bere ideiak bideratu eta neurtu egiten ditu: edozer egin aurretik, pentsatu egiten da zer-nolako aukerak dauden hori egiteko, izango dituen ondorioak baloratu egiten dira eta, azkenik, izandako emaitza aztertzen da. Autokontrolik ez daukaten umeendako zaila izaten da prozesu hori egitea. Prozesu hori egiteko gai dira, baina zailtasun handiagoekin.

Eta lan hori egiteko trebatzen dituzue, ezta?

Hori da. Gure lana da prozesu hori zelan egin apurka-apurka irakastea. Horretarako laguntza behar dute, eta poliki-poliki irakatsi behar zaie.

Zer da zailagoa, umeekin ala gurasoekin lan egitea?

Galdera interesgarria da hori. Umeei zaila egiten zaie euren gaitza zein den ulertzea, baina gurasoendako ere ez da batere erraza. Lehen ere esan dugu gaitz kronikoa dela, hau da, bizi osorako gaixotasuna dela, eta hori onartzea ez da erraza. Askotan, guraso edo hezitzaileoi ahaztu egiten zaigu hori, eta ez dugu ondo jokatzen umearekin.

Zein lan egiten duzue gurasoekin?

Umeekin psikoterapia indibiduala egiten dugula esan dugu lehen, baina horrez gain, gurasoekin ere egiten dugu lan. Guraso taldeak daude, hainbat mailatan. Hasierako lana izaten da norberak izan duen esperientzia besteoi kontatzea. Horrela, norberaren esperientziak gain, besteona ere entzuten da. Horren ondoren, profesional batekin hainbat gauza ikasten dira: seme-alaba zelan hezi eta bere bizitza zelan bideratu, besteak beste. Horrez gain, sintomen aurrean zelan jokatu jakitea ere garrantzitsua izaten da.

Lehenengo egin beharreko lana, hortaz, gaixotasuna onartzea da.

Bai, eta hori izaten da lan zailena. Onartu egin behar da betiko izango duen gaitza dela, eta hori ez da erraza. Horrez gain, askotan, gurasoak errudun sentitzen dira. Gaitza behin onartuta, errazagoa izaten da lan egitea.

Gaitz hori izanda ere bizimodu normala egin daiteke, ala?

Bai, umeak bizimodu normala egin dezake. Esan beharra dago gaitzaren hiru sintometatik bi nerabezaroan murriztu egiten direla: hain zuzen, arreta falta eta hiperaktibotasun fisikoa. Autokontrolik eza izaten da adin horretan gehien pairatzen duten sintoma. Arazo hori landu behar da sakonen adin horretan.

Umeak gaitz hori duen susmoa daukaten gurasoei zer gomendatuko zenieke?

Lehenik eta behin, irakaslearekin berba egiteko esango nuke. Irakasleek denbora luzea igarotzen dute umeekin, eta etxean zerbait sumatu badute, seguruenik, irakasleak izango du zer esan. Eta horren ondoren, profesional batengana jo edo, bestela, ADAI elkartera etorri.

Datorren astean greba egiteko deia egin dute UGT eta ELA sindikatuek

UBANE MADERA

ELAK eta UGTk, nor bere aldetik, datorren asteko grebetarako deia egin dute. UGTk kale bilkura egin zuen INEMen eta ELAK prentsaurrekoa eskaini zuen. Biek hala biek nabarmendu zuten lege berriekin langabeen egoera jasangaitza izango dela.

UGTk ekainaren 20an kalera irteko deia egin zuen INEMen aurrean, kale bilkura batekin. Han izan zen, besteak beste, Dámaso Casado, sindikatuko EAElko idazkari nagusia. Eta GOITBri adierazi zion langabeziaren dekretu berriak "langileen kaleratzea merkatuko duela eta talde jakinen langabezia saria murriztu: 52 urtetik gorakoena, nekazariena...". Horregatik, greba egin behar dela esan zuen.

Greba egiteko deialdi bikoitzaren ganean, berriz, Dámaso Casadok, besteak beste, adierazi zuen guztiak batera egin behar luke dela greba, dekretu berriak langile guztien gain duelako eragina. Gaineratu zuen ez duela ulertzen deialdi bikoitza eta grebari lagundu baino "PPren gobernuari laguntzen diola, grebaren porrota bultzatzen du-eta".



Martitzenean UGTk INEMen aurrean kale bilkura egin zuen grebarako deia egiteko.

ELA SINDIKATUAREN DEIA

ELA sindikatuek, berriz, prentsaurrekoa eman zuen, ekainaren 19an grebarako deia egiteko. Unai Martínez Debarroko ELAko ordezkariak adierazi zuen langileen kaleratzea merkatueaz gain, langabezi saria lortzea zailduko duela dekretuak. "Gutxien duenari kendu egingo diote", adierazi zuen, eta nabarmendu, INEMek aurten 3.000 milioi euroko superabita izan duela. Gaineratu zuen

Euskal Herrian langabeen %60k ez dutela ezer kobratzen eta geroz eta babes handiagoa eskatzen ari direnean, Madrilek geroz eta babes txikiagoa ematen duela.

Dei bikoitzaren ganean, berriz, adierazi zuen lastima dela bi dei egitea, baina "CCOOk eta UGTk ez dute hitz egin gura izan". Gaineratu zuen azken sei urteotan sei lan erreforma egin dituela PPK eta sindikatuek ez dutela ezertxo ere egin.

LABUR

Musakolako kiroldetako kanpoko igerilekua bihar, zapatua, zabalduko dute

Bihar hasiko da udako denboraldia Musakolako kiroldetako kanpoko igerilekuan. Horren irudi, kanpoko igerilekuak zabaldu eta barrukoak itxi egingo dituzte irailaren 15era arte. Horrela, bihartik aurrera, astelehentik domekara 09:30etik 20:30era arte izango dira zabalik.

Aurten, gainera, udako bonoa izango da aukeran. Denboraldi osoan erabiltzeko izango da. Bakarkakoak, hogeitun urte behar-koendakoak 24,45 euro balio du; hogeitun urtetik gorakoendakoak 40,25 euro eta familia osoarendakoak, berriz, 63,10 euro.

Datorren astean berrituko odola emateko aukera izango da

Oraingo astean hirutan izan dira Arabako Odol Bankuko langileak Arrasaten. Adierazitakoaren arabera, uda partean odol falta kopuruak gora egiten du eta odol emaleenak, berriz, behera. Horregatik ari dira odola batzen.

Horrela, datorren astean berrituko dira ambulatarioak. Martitzenean eta eguaztenez, hain zuzen ere. Eta, uztailearen 2an eta 3an etorriko dira hirugarren aldiz. Arratsaldeko lauak eta laurdenetatik zortziak arte egongo dira egunero. Ambulatorioan ez ezik, inguruko enpresetan ere batuko dute odola.

Ibai Arte elkarteak greba ekainaren 19an egiteko gomendatu die bazkideei

ELA eta LAB sindikatuek Euskal Herrian gehiengo dutela kontuan hartuta, Ibai Arte elkarteak greba ekainaren 19an egiteko gomendatu die euren bazkideei. Greba 12:00etatik aurrera eta 19:00etatik aurrera izango da. Edozelan ere, horrekin batera ezin-negona ere adierazi dute, autonomo izanda euren errebindikazioak kontuan ez hartzearen. Eta, Euskal Herrian bi greba egun egoiteak kalte ekonomikoak ekartzen dituela ere gaineratu dute. Edozelan ere, gainerako langileei elkartasuna adieraztearen, esan bezala, greba egitea erabaki dute.

Preso politikoaren baldintzapeko askatasunaren alde, Noizko? taldea

UBANE MADERA

Legeak esaten duen moduan, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoendako baldintzapeko askatasunaren eskubidea eskatzeko taldea sortu da Arrasaten. Noizko? du izena. Eta ekainaren 30erako Noizko? Eguna antolatuko dute.

Euskal Herrian Noizko? taldea sortu zen apirilaren 14an. Legez kalean egon behar liratekeen presoaren eskubideak defendatzeko taldea da. Arrasaten ere bat egin dute taldea horrekin, eta, martitzenean, hemengo taldea aurkeztu zuten. Han ziren, besteak beste, Arrasateko hiru alkate (Alvaro Arregi, Jose Antonio Altuna eta Xabier Zubizarreta), Aitor Lopez Rekarte Bonba futbolaria, Andoni Altzela SUDCKo ordezkaria, Anari abeslaria eta Manex Agirre bertolaria.

Juan Luis Arexolaleiba arrasatearrak hartu zuen hitza. Adierazi zuen presoaren egoera larria dela eta, horregatik eratu dela Noizko?, egoera hori gizarteratzeko. Esan zuen Euskal Herrian 120 preso baino gehiago daudela legez baldintzapeko askatasunaren izan behar-



Taldearen aurkezpenaren herriko jende ezagunak parte hartu zuen.

ko liratekeenak. Tartean, aramaior bat eta lau arrasatear: Enrique Letona (99tik aske beharko luke); Jesus Mari Zabarte (99tik aske beharko luke); Jose Gabriel Urizar (2000tik aske beharko luke); Jose Ignacio Gaztañaga (2001etik aske beharko luke) eta Jon Agirre aramaior (96tik aske beharko luke).

NOIZKO? EGUNA

Bestalde, ekainaren 30ean Arrasaten Noizko? Eguna izango dela

iragarri zuen. Beste bi herritan egin dute hori: Gasteizen eta Zornotzan; eta orain, hemen izango da. Besteak beste, baldintzapeko askatasunaren beharko luke tenen senideak etorriko dira. Espero dute ekitaldi jendetsua eta elkartasunez bete izatea. Atxikimenduak batzen ari direla ere esan zuen. Eta adierazi zuen egoera honek ez diola mesederik egiten Euskal Herriak behar duen normalizazio prozesuari.



Dilista edo lenteja zaporeko izozkia

Dilista edo lenteja zaporeko izozkia asmatu dute Arrasaten. Bestetan ere egin izan du horrelakorik Josu Uribarrenek. Adibidez, Eugenio anaiarekin batera, orain dela hamar bat urte, Idiazabal gaztako zaporedun izozkia asmatu zuten. Patxarana, txakolina eta baba zaporedun izozkiak ere izan dituzte Izozkitegi gozotegiko salmahaiak; eta aurten, lenteja edo dilista zaporeduna izango dugu aukeran. Gainera, zapore berriak sortzeko asmoa dute anaia biek. Esaterako, datorren urterako, arbigaren zaporea duen izozkia egiteko asmoa dute.

Onartu dute Araba etorbidea berriro urbanizatzeko proiektua

UBANE MADERA

Hirigintza eta jarduera ekonomikoaren arabera antolatu eta aparkalekuak eta oinezkoen bideak egokitu gura ditu Udalak San Andres auzoan. Gobernu Batzordeak oraingo astean onartu du proiektua. 1.102.974,28 euroko aurrekontua du proiektuak.

Besteak beste, Maiatzaren 1a plazan biribilune bat egingo dute eta beste bat Polmetasa parean. Horrekin batera, Maiatzaren 1a plaza inguruko espaloiak egokitu dituzte eta 12 aparkaleku egingo dituzte. Era berean, plazaren eta errekaren artean geratzen den gunean aisialdirako gunea egokituko dute: zuhaitzak, jarlekuak... izango ditu. Aurre-rago, CIM ingurutik aurrera, 29 aparkaleku sortuko dituzte, eta espaloiak egokitzeko asmoa dute.

APARKALEKU GEHIAGO

Eta, hortik aurrera ere, antzerako asmoa du Udalak. Adibidez, Bastida akademiaren inguruko lantegien aurreko aldea berriro antolatu eta 58 aparkaleku erai-ki gura ditu Udalak. Zailtasunak dituztenendako ere egingo dituzte aparkalekuak.



UBANE MADERA

Eskatu eraikinaren aurrean hasiko dira lanak egiten.

MARKESINA

Hiruki plazan, berriz, pergola itxurako aterpea egingo dute. Autobus geraleku izateaz gain, haren babesean ipiniko dituzte telefono kabina, ONCeren saltokia... Era berean, horren parean, errepidearen beste aldean, markesina berri bat eraikiko dute, oraingoaren ordezkia.

AURREKONTUAREN ARABERA

UR&MA enpresak idatzi du

proiektua, DUBEGA enpresaren laguntza teknikoarekin. Pentsatu dutenaren arabera, 1.102.974,28 euroko aurrekontua izango dute lanok. Hirigintza Saitetik adierazitakoaren arabera, Udalaren diru baliabideen arabera egingo dituzte. Hala ere, urtea bukatu baino lehen hastea espero dute. Hasi, Eskatu eraikinaren aurrean hasiko dira lanok egiten eta Polmetasako lanak izango dira azkenak.



Joseba Garitaonaindia kalean da

Seber Altube plazan zenbait herrikide zain zituen Joseba Garitaonaindia arrasatearrak eguenean. Izan ere, ordu eskas lehenago, Langraitzeko kartzelatik aske irten eta herrira itzuli zen preso izandakoa. Ikurrinak eta amnistiaren aldeko banderak alde banatan zituela iritsi zen plazara, txalaparta doinuek lagunduta. Familiartekoen eta lagunaren besarkadak jasotzeaz gainera, Ainhoa Agirreazaldegri bertsolari bergararraren eta senitar-tekoen lore eskaintza ere eskaini zizkioten. Joseba Garitaonaindia hunkituta azaldu zen orduan. Bukatzeko, manifestazioa egin zuten. /U.M.



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

Parte hartu

600 €

hileroko zozketan.
(Maiatzetik uztaileira)


Sari-ixarteiak Ibai-arteko komertzioan aurkituko dituzue.

ibai-arte



DOMEKAN, MUS TXAPELKETA

Domekan, VI. Mus Txapelketa jokatu da Mondragon Hotelean. Aurten ere txapelketa arrakastatsua izango dela espero dute; izan ere, inoiz baino sari gehiago egongo dira. Roman Lópezek, txapelketako antolatzaileak, sari mordo eskuratu du aurtengo txapelketarako: lehenengo 16 taldeek izango dituzte sariak. Aurtengo txapelketan ere emakumezkoek zein gizonezkoek hartu ahal izango dute parte. Argazkian ageri direnak joan den urteko irabazleak dira.



OMENALDIA, ETA ARRANTZARA!

Orain dela aste bi, Itsasoko Arrantza Txapelketa jokatu zuten Ondarroan, eta arrantza eguna aprobetxatuta, 20 urtean Eibarko Diana Elkarteko presidente izan den Xanti Arrieta eta Ramon Ramila omendu zituzten. Ramon Ramila mondagoetarra azkenaldian ez dabil txapelketetan parte hartzen, eskuan min dauka-eta. Egun hartan, parte hartzaileek kilo bi arrain baino ez zituzten hartu. Ondoren, hori bai, afari ederra egin zuten Ondarroan elkartu ziren lagunek.

Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate
Tel.: 943 79 90 43

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak


Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



Atsegin handiz aditzera ematen dizugu osasun denda zabaldu berri dugula. Zure etxetik gertu gaudenez, erosotasun handienarekin eskaini ahal izango dizkizugu produktu gama zabalena eta gure espezialistaren aholkularitza dietetikoak.

Santiveri Auzotarrak gara dagoeneko





XABIER URZELAI

Jon Aperribai Hektor Llanosek baino minutu bat eta hamabost segundo gehiago behar izan zituen proba betetzeko.

TRIATLOIA

Jon Aperribai eta Héctor Llanos, zapatuko triatloiko protagonistak

Zuhaitz Ezpeletak ere sekulako lasterketa egin zuen eta laugarren iritsi zen helmugara

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan, Jon Aperribai eta Zuhaitz Ezpeletak sekulako erakustaldia egin zuten, eta triatloiko goiko postuetan izan ziren. Irabazlea Héctor Llanos izan zen, baina hori beste kontu bat da.

Izan ere, Gasteizko atleta beste maila baten dago; edozelan ere, Jon Aperribairi minutu bat eta

hamabost segundoko aldea baino ez zion atera. Jon Aperribai eta Zuhaitz Ezpeleta ez ziren Urkulun azkarrenak izan, baina bizikleta hartu bezain laster, lasterketa burura hurreratu ziren.

Aurrean, Héctor Llanosek eta Garikoitz Etxebestek bakarrik egin zituzten berrogei kilometroak. Atzetik, Jon Aperribai aurreko biak harrapatu guran. Probaren azkeneko txanpan, lasterka egin beharreko 10 kilome-

troetan, Atletiko San Sebastian taldeko Garikoitz Etxebestek behera egin zuen, eta Jon Aperribai aurre hartu zion. Zuhaitz Ezpeleta izan zen lasterkako proban azkarrena: 32 minutu eta 54 segundo behar izan zituen Zuhaitzek 10 kilometroak egiteko. Azken baten, proba arrakastatsua izan zen, eta herriak ondo erantzun zuen. Eta aipamen berezia merezi dute triatloia antolatzen ibili zirenek.

Cristóbal Limeres, Arrasate Hiria Xake Txapelketako irabazlea

XABIER URZELAI

Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia jokatu zuten joan den egubakoitzean. Emozioz betetako jardunaldia izan zen, postu bat bera ere ez zegoen-eta ziurtatuta. Cristóbal Limeres izan da onena.

Aurtengo txapelketa oso parekatua izan da, eta xakelari onena Peña Rey Ardid taldeko Cristó-

bal Limeres gernikarra izan da. Azkeneko jardunaldian gernikarrik derrigorrez irabazi behar zuen, Borja Zamarbide gazteak ez zuen-eta Jose Manuel Hernandoren aurka barkatu. Cristóbal Limeresek, ordea, argi zeukan zein zen egin beharreko lana, eta Gerardo Fernandori irabazita eskuratu zuen txapelketa.

Bigarrena hamalau urteko Borja Zamarbide gazte nafarra izan da. Arrasateko San Andres

Xake Taldeko Josu Tornayk hirugarren postuan amaitu du txapelketa. Kataluniarrak maila polita erakutsi du, Cristóbal Limeresi eta Borja Zamarbideri Josuk bakarrik irabazi zien-eta.

Arrasateko San Andres Xake Taldeko gainerako xakelariak ez dute euren benetako maila erakutsi. Bestalde, datorren ekainaren 23an (domeka), xake partida azkarrak jokatzeari gainera, sari banaketa ere egingo dute.



Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

Hurrengo partidua: finalerdiak

Ekainak 15, zapatua (Musakolako kiroldegian)

Kepa - Goiko vs Txori - Kaji 11:00etan Frontoi txikian

Gaizka - Ugutz vs Iñigo - Istiruz 12:00etan Frontoi txikian

FINALERDIAK ERE MUSAKOLAN IZANGO DIRA

GURAGO DUTE ZAPATU GOIZEAN JOKATZEA, ETA UARKAPEN EZINEZKOA DA

Txapelketa Musakolako kiroldegiko pilotalekuan jokatu dute, baina azkeneko partidua finalerdiak eta finala. Uarkapen jokatzekoak ziren. Uarkapen jokatzeko aukera bakarra, ordea, zapatu arratsaldean jokatzeko zen, eta jokalariek gurago dute zapatu goizean jokatzeko. Hori dela eta, finalerdiak Musakolan jokatu dituzte, baina finala Uarkapen jokatu dute ekainaren 22an (zapatua). Partidua eguerdiko hamabietatik aurrera izango dira, eta, txapelketan parte hartu duten guztiendako sariak izango direnez, ahalik eta jende gehien egotea espero dute antolatzaileek. Horrez gain, finalean giro bikaina izateko, jendearen berotasuna ezinbestekoa izango da.

FOTOKIROLA



Uso Tiroketa Txapelketa bihar, zapatua

San Kristobalgo kanposantu ondoan dagoen zelaian jokatu dute bihar, zapatua, San Juanetako Uso Tiroketa Txapelketa. Txapelketa goizez eta arratsaldean izango da. Lehenengo sei sailkatuek sariak izango dituzte, eta guztira, 1.195 euro inguru izango dira saritan. Txapelketan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da federatuta egotea. Leintz elkarteko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, berriz, 36 euro. /X.U.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

AUKEA SARIAK

Triatloiarekin batera, iazko Aukea sariak banatu zituzten zapatuan

Aukea sariak Jonathan Pérezek, Jesus Morenok eta Jose Mari Barrenak jaso zituzten

XABIER URZELAI

Debagoieneko Triatloia aitzakia ederra izan zen 2001eko Aukea sariak banatzeko. Zapatuan, triatloia amaitu eta gero, joan den urtean kiroletan meritu handienak egin zituztenek jaso zituzten sariak. Jonathan Pérez, Jesus Moreno eta Jose Mari Barrena igo ziren taula gainera saria jasotzera.

Jonathan Pérezek bakarkako saria jaso zuen, joan den urtean atletismoan lortutako emaitzenatik. Jesus Morenok sari berezia jaso zuen, Arrasateko futbolaren alde egindako lanagatik. Talde onenaren saria, bestalde, Arrasate Triatloi Taldearendako izan zen, eta Jose Mari Barrenak jaso zuen saria.

KIROLETAN PROTAGONISTAK

Jonathan Pérez joan den urtean Arrasateko kirolari onena izan zen. Real Sociedad taldearekin, 21 urteko atleta horrek pertika-jauzietan marka politak egin ditu, eta 4,85 metroko jauzia du marka onena. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna, Jonathanen hel-



Jonathan Pérez, Jesus Moreno eta Jose Mari Barrena, saria eskuetan dutela.

XABIER URZELAI

burua bost metrora iristea da.

Taldekako saria Arrasate Triatloi Taldeak jaso zuen. Arrasateko Triatloi Taldea 1993an sortu zen, eta Jose Mari Barrena ibili da presidente lanetan. Aurten, Arrasateko Triatloi Taldea desagertu egin da, eta Antxintxika Debagoiena Taldea sortu. Edoze-lan ere, Arrasate Triatloi Talde-

ak lorpen handiak egin zituen iaz; besteak beste, Debagoieneko I. Triatloia antolatu zuen.

Azkenik, Jesus Morenok sari berezia jaso zuen; Arrasateko futbolaren alde egindako lanagatik eman zioten. Hainbat urtean Mondrako talde nagusiko entrenatzaile izan da, eta talde gazteekin ere ibili izan da lanean.

FOTOKIROLA



Proba arrakastatsua Mojategin

Joan den astean, hirurogei lasterkari izan ziren Mojategin jokatu zen Moto-kros Txapelketan. Gazte, junior eta senior mailako lasterkariak izan ziren. Ez zen arrasatearrik izan, baina Arrasateko Motozale Elkarteko hainbat lasterkarik postu onak eskuratu zituzten. Gazte mailan, Haimar Marcilla izan zen lehena; junior mailan, Arrasateko elkartekoek eskuratu zituzten lehenengo hiru postuak: Mikel Izagirre izan zen lehena, Joritz Garmendia bigarrena eta Ibai Iglesias hirugarrena; 125eko motoetan, Francisco García izan zen onena; eta 250eko motoetan, berriz, Aitor Olaberri izan zen azkarrena eta bigarrena Arrasateko elkarteko Heber Garmendia izan zen. /X.U.

Segurtatu hobeto zure autoa Segurtasun osoz



MAPFRE

Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

ARRASATE MUSIKALEKO IKASTURTE BUKAERAKO KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko ikasleen kontzertua gaur Amaia Antzokian



Arrasate Musikaleko ikasleek, hainbat kontzertutan, eskolan ikasitakoa erakutsiko digute.

IKER BARANDIARAN

Aste honetan bukatu da Arrasate Musikaleko eskolen aurtengo ikasturtea. Hori ospatzeko, Arrasate Musikaleko talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Amaia antzokian.

Arrasate Musikaleko eskolak bukatu direla eta, kontzertu berezia antolatu dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, Amaia antzokian. Emanaldia doan izango da eta, batez ere, eskolako talde instrumentalek ariko dira.

Arrasate Musikaleko ikasturte bukaeraren emanaldia hasiteko, lau eta sei urte bitarteko umeen abesbatzak *Aldapeko* eta *Sinosuke* kantuek abestuko ditu. Jarraian, Arrasate Musikaleko baleta ariko da. Oihane Urtzelaiak,

*Gaur, Umeen
Abesbatza, Baleta,
Orkestra Gaztea
eta Banda Txikia
ariko dira*

Andrea Vázquezek, Maite Carre-rasek eta Leire Aranegik *Somos personas y sentimos, a ti te lo decimos* eta *¡Ole!...¡Ole!* piezak dantzatzeko dituzte; koreografiaren arduraduna, berriz, Jana Fuentes izango da.

Horren ondoren, Arrasate Musikaleko Orkestra Gazteak Haendel-en eta Prelevo-ren kantuek joko ditu; zuzendaria Esther Conde izango da. Bukatzeko, Arrasate Musikaleko Banda Txikiak Sutherland-en eta Barker-en pieza bi joko ditu; zuzendaria

*Martitzenean,
Arrasate Musikaleko
ikasleak kalera
irtengo dira musika
jotzera*

Joxe Migel Etxebarria izango da. Hori izango da azken ekitaldia.

Arrasate Musikalekoen ikasturte bukaerako ekitaldiak, ordea, ez dira hor amaituko. Datorren martitzenean, hilaren 18an, 18:00etan, Arrasate Musikaleko hainbat ikasle kalera irtengo dira musika jotzera, eskolan egiten duten musika herritarrei zuzenez erakustera. Txistu, saxofoi, fagot, oboe, klarinete, flauta, tronpeta, tronboi, biolin eta akordeoien soinua entzuteko aukera egongo da, arratsaldean.

Sendabelar bilketa rally erara eta erakusketa antolatu dituzte

AED elkarteko Kultura Taldeak ekimen berezia egingo du etzi, domeka. Ekimen horri honako izena jarri dio AEDko Kultura Taldeak: *Sendabelar bilketa rally erara eta erakusketa*.

Hain zuzen ere, sendabelarren aditu Esteban Laskurain arrasatearraren laguntzarekin, gura duen edonork har dezake parte domekako ekimenean. Goizeko zortzietan elkartuko dira, Seber Altube plazan. Eta interesatuok orduan izango dute sendabelarren rallyrako eta erakusketarako izena emateko aukera.

Gura duenak parte hartzeko izena eman eta guztiak taldeka banatu ondoren, 09:00etan, parte

hartzaileen artean guztira batu beharreko belar sortaren zozketa egingo dute, eta parte hartzaileek mendi aldera joko dute sendabelarren bila.


11:30era arteko epea izango dute sendabelarrak batzeko, eta ordu horretan, 11:30ean, rallya bukatutzat emango dute. Parte hartzaileek jasotako belar sortak aurkeztuko dituzte eta Esteban Laskurainek baliotasun frogak egingo die jasotako landare guztiei.

SENDABELARREN ERAKUSKETA

Jarraian, 12:00ak aldera, rallyan parte hartutakoek ordu eta erdian jasotako sendabelarrekin era-

kusketa egingo dute Seber Altube plazan. Bazkal ordura arte ikusgai egongo da erakusketa, eta, seguruenik, gerturatuko diren arrasatear zein kanpotarrek ibarrean bertan ditugun landare, belar eta sendabelarrez asko ikasiko dute.

Antolatzaileen asmoak betetzen badira, guztira, Leintz ibarrean batutako laurogeita hamar sendabelar ikusteko eta ezagutzeko aukera izango dugu. Hortaz, ez da edonolako aukera. Animatzeko eta parte hartzeko deialdia egin dute. Inguruan daukagun landaretzaz eta horrek dituen onurez asko ikasi izango dugu, seguru.



Asier Serrano eibartarrak 'Ez esan inori' diskoa aurkeztuko du.

'Putz jaia' egingo dute datorren egubakoitzean

I.B.

Apokaliftin Kultur Elkarteak *Putz jaia* antolatu du datorren egubakoitzerako, ekainaren 21erako. *Putz* aldizkariaren hamabosgarren zenbakia kaleratzeaz bat, ikuskizuna antolatu dute Amaian.

Apokaliftin Kultur Elkarteak *Putz* aldizkariaren hamabosgarren zenbakia kaleratuko du datorren astean. Hain justu, egubakoitzean, hilaren 21ean, Amaia Udal Antzokiko *hall*-ean egingo duten *Putz jaia*-n aldizkariaren azken alea eskuratu ahal izateko.

Gaueko hamar eta erdietan, Amaia Udal Antzokiko *hall*-era Felix Roderano kabareta eta Asier Serrano eta bere taldea eramango dituzte. Jaialdi bitxia, hortaz, *Putz* aldizkariaren izaera bereziarekin bat egingo duena, ziurrenik.

Asier Serrano ezaguna da. Eibarko gazte hori EH Sukarra tal-

dearen abesti askoren hitzen egilea da. Horrez gain, aspalditik dabil poesia eta narrazioa idazten eta pare bat liburu idatzi ditu dagoeneko. Azkena, *Hoteleko Kontuak*. Apokaliftin Kultur Elkarteak argitaratu zuen. Lorelei taldearen sortzaile eta abeslaria ere izan zen. Duela gutxi, bakarlarri moduan, *Ez esan inori* izeneko diskoa kaleratu zuen. Hotsak diskoetxearekin. Zuzenean taldekide gehiago izango ditu.

FELIXA RODERANO KABARETERA

Kabareta ikustea ez da ohikoa, argutxiago, euskaraz bada. Rita Aldai donostiarra Felix Roderano *arrabalera* bilakatzen da taula gainean.

Felix Roderanok eskarmentu handia dauka pailazo lanetan. Eta azpimarratu digu Amaia Udal Antzokiko *hall*-era hurbilduko diren ikusleak sutan jarriko dituzte. Horrez gainera, dantza eta abestu ere egingo du datorren egubakoitzean.

Kuraia eta Etsaiak taldeek diskoa aurkeztuko dute

Datorren egubakoitzean, ekainaren 21ean, kontzertu berezia izango da Arrasateko gaztetxean. Gaueko hamarretatik aurrera, Etsaiak bizkaitarrak eta Gipuzkoako Kuraia taldea ariko dira.

Etsaiak taldeak urte dezente daramatza musikan eta, gainera, herrian oso ezaguna da. Lekeitioko musika talde horrek urte mordo daramatza kontzertuak ematen; *punk-hardcore* estiloa egiten dute. Duela gutxi, *Luze-metralla* izeneko bideoa eta *Kaos* izeneko diskoa kaleratu zituzten. Azken disko hori taldearen zuzendariaren da, eta betiko doinu gogorrei samplerren eta *scratch*-en indarra gehitu diete.

KURAI, GOGOR DABILEN TALDEA

Lekeitioko Etsaiak taldeaz gainera, Kuraia taldeak ere diskoa aurkeztuko du. Kuraia taldea oso musikari ezagunek osatzen dute.

Hasiera baten, Dut taldeko Josebak hainbat abesti idatzi zituen eta Zaragozako El Corazón del Sapo taldeko abeslariarekin, Fernandorekin, harremanetan jarri zen, Fernandok berarekin abestuz.

Joseba eta Fernando elkarrekin lanean hasi ziren, abestiak moldatu zituzten eta diskoa grabatzea erabaki zuten. Horretarako, beste musikari esanguratsu bi aukeratu zituzten: Dut taldeko Galder eta Anestesiako Mikel.

Lau musikari horiek Zarazoko Fidelenea estudioan grabatu zuten diskoa, hamaika kantut indartsuz osatutakoa, eta horren ondoren, Garate estudioan nahastu zuten. 2001. urtearen bukaeran, Metak diskoetxeak diskoa kaleratu zien, eta *punk-rock* eta *hard-rock* estiloen arteko oso kantut indartsuak ditu. Arrakasta handia lortu dute.

E, TXO!

GUREGAIK / MUSIKA TALDE BAT EGITEA, ASKOREN AMETSA

Musika taldeak sortzeko zaletasuna gorantz doa

IKER BARANDIARAN

Arrasaten musika zaletasun handia dago eta musika talde asko daude. Aspaldian, herriko gaztetxo askok ere musika talde berriak sortu gura dituzte. Hala ere, diru dezente behar da talde bat osatzeko.

Arrasaten musika talde morderoa daude. Egungo gaztetxo askok ere musika talde berriak sortu gura dituzte. Euren ametsa musika talde bat sortzea da, baina egia esanda, talde bat egiteak diru kostu handia dauka.

OSO AURREKONTU HANDIA

Ohiko musika talde bat egiteko, gitarra, baxua, bateria eta aplikadoreak behar dira.

Talde bat egiteak oso kostu handia dauka. Instrumentuak eta entseatzeko lokala oso garestiak dira

Egun, Arrasaten instrumentu denda bakarra dago eta musika jotzen hasteko instrumentu merkeen salneurriak eskatu diegu. Gitarra merkeena, esaterako, 120 euro kostatzen da; baxu merkeena, 180 euro; bateria bat, 360 euro; eta aplikadore merkeena, 180 euro. Musika taldeek Udalak



IKER BARANDIARAN

Su Ta Gar taldea, esaterako, oso gustuko dute Arrasateko gazte askok.

taldeek entseatzeko Musakolan dituen lokaletan lekua hartu edo lokal bat alokatu beharko dute.

Lokalak oso garestiak dira eta, gainera, taldeei trabak jartzen dizkiete.

GAZTETXEO BATZARRA

Gaur, egubakoitza, gaueko hamar eta erdie-tan gaztetxean egingo duten batzarrean, beste gai batzuen artean, San Juanetarako txandak prestatuko dituzte. Izena emateko eta beste edozein gairen gainean berba egiteko gazte guztiei deialdia egingo diete.

ZUZENKO MUSIKA

Datorren egubakoitzean, ekainaren 21ean, kontzertu itzela egingo dute Arrasateko gaztetxean. Gaueko hamarretatik aurrera, Lekeitioko Etsaiak taldeak *Kaos* izeneko diskoa aurkeztuko du. Kuraia gipuzkoarrek ere *Kuraia* izeneko lana aurkeztuko dute. Kontzertu biribila izango da eta ziur San Juanetako giroa pizten lagunduko duela. Eta ekainaren 25ean, martitzenean, EH Sukarra taldeak *Galtzaienaren Eguna* izeneko diskoa aurkeztuko du.

GAZTEAK ETA AISIALDIA ARGAZKI LEHIAKETA

Udaleko Gazte Sailak Gazteak eta Aisialdia argazki lehiaketaren XIII. aldia antolatuta du. Lehiaketaren helburu nagusia da gazteen artean argazki zaletasuna sustatzea. Kategoria bi bereiztu dituzte: bata, Debagoieneko 13 eta 17 urte bitarteko gazteendako; eta bestea, 18 eta 35 urte bitarteko guztientzako.

Gaia *Gazteak eta aisialdia* izango da, eta argazkiak koloretan zein zuri-beltzean aurkeztu ahal izango dira. Formatuari dagokionez, berriz, gazteen kategorian librea izango da; 18 eta 35 urte bitarteko kasuan, gutxienez, 18 x 24 zentimetro izan beharko ditu eta, gehienez, 30 x 40 zentimetro. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da.

LOTSABARIK / Amaia Zubizarreta

“Txikitan, arrain saltzaile izan gura nuen”

I.B.

Amaia Zubizarreta oso neska alaia da eta ez dauka lotsa handirik; hala ere, ez du oso gustuko argazkietan irtetea. Ikasketek asko arduratzen dute, eta eskolan fin dabilela esan digu. Ikusi behar...

• **Txikitan, zer izan gura zenuen?**

Txikia nintzanean, arrain saltzaile izan gura nuen, arrandegietan saltzaileak arraina mozten eta garbitzen ikustean polita iruditzen zaidalako. Gerora, iritzia aldatu dut. Edozelan ere, amari etxean arraina garbitzen laguntzen diot.

• **Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?**

Ezkonduta, umeren batekin, eta, posible bada, lanean. Egia esanda, kostaldean pozik bizi izango nintzateke.

• **Zein da, zure ustez, adin ideala?**

14-15 urte edukitzea oso ondo dago, adin horretan ardura eta konpromiso gutxi dauzkagulako.

• **Bizitzan, zeri ematen diozu lehentasuna?**

Ikasketei, lagunei eta familiari.

• **Zerk arduratzen zaitu gehien?**

Une honetan, ikasketek.

• **Zerk ematen dizu lotsa?**
Zerbait txarto egin eta jende

aurrean barregarri gelditzeak.

• **Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?**

Alaia naiz eta beti daukat gauzak egiteko gogoia, baina erraz haserretzen naiz.

• **Arrasaten ligatzen da?**

Apur bat bai. Batzuek diotena baino gehiago ligatzen da.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Begiak eta hankak. Begiak, begi argiak gustuko ditudalako, eta hankak, edozer janzteko arazorik ez daukadalako.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**

Lehenengo, duen aurpegiari, eta gero, mutila hura zelakoa den ezagutzen ahalegintzen naiz.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 2. maila • ZALETASUNAK: Aerobika eta dantza egitea
LIBURU BAT: 'Manolito Gafotas' • FILM BAT: 'Titanic' • MUSIKA TALDEA: La Oreja de Van Gogh • KIROL TALDEA: Reala

Bikain Akademia
Bikain Akademia

Garibai, 6 - B ARRASATE
Tel.: 943 - 77 11 06
www.bikain.net

Udako ikastaro trinkoak:
Ekaina, Uztaila eta iraila

- Mekanografia
- Informatika
- Internet

Abuztuan, unibertsitaterako eskola partikularrak

Ordutegia: goizez eta arratsaldez

Presta ezazu datorren urteko ikasturtea uda honetan!
LH, DBH, LOGSE, BT

“PAL”

Burdindegia

Brikolajea

Tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
Etxeko txorizo bereziak
ITURRIOTZ KALEA. 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Gazte ikastaroak

argazkigintza

Uztailaren 3tik 22ra.
Astelehenetan eta asteazkenetan
18:30etik 21:00etara.

Matrikula: 30 €. Ikasle eta langabeak: 18 €
Izenematea: Gazte Bulegoan
Ikastaroa ASako lokaletan egingo da.
Plaza mugatuak
Irakaslea: Jon Ruiz de Zarate

sabel dantza

Uztailaren 2tik 24ra.
Astearteetan, asteazkenetan eta ostegunetan

Hastapen ikastaroa, goizez, 11:00etatik 13:00etara.
Sakontze ikastaroa, arratsaldez,
16:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 30 €. Ikasle eta langabeentzat 15 €
Arrasate Musikalen.
Izenematea: Gazte Bulegoan
Plaza mugatuak
Irakaslea: Jaione Albeniz

autodefentsa

Uztailaren 2tik 24ra.
Astearteetan, asteazkenetan
eta ostegunetan

Hastapen ikastaroa, goizez,
11:00etatik 13:00etara.
Sakontze ikastaroa, arratsaldez,
16:00etatik 18:00etara.

Matrikula: 30 €.
Ikasle eta langabeentzat 15 €
Arrasate Musikalen.
Izenematea: Gazte Bulegoan
Plaza mugatuak
Irakaslea: Jaione Albeniz

gaur egungo dantza

Uztailaren 1etik 12ra, goizeko taldea;
11:00etatik 12:30era.
Uztailaren 15etik 24ra, arratsaldeko taldea;
18:30etik 20:30ak arte.
Ikastaroa egunero izango da epealdi horietan.

Matrikula: 30 €, Ikasle eta langabeak 15 €
Izenematea: Gazte Bulegoan.
Irakaslea: Saioa Ibañez.





ARRASATE
Haizea Cabañes
Ekainaren 18an, 3 urte.
Zorionak, Enekoren partetik.



ARRASATE
Markel Bouzón
Ekainaren 19an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARAMAIO
Maider Larrañaga
Maiatzaren 14an, 24 urte.
Zorionak! GGA.



ARAMAIO
Jesus Gardoki
Ekainaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maitane Diéguez
Ekainaren 17an, 7 urte.
Zorionak! Auroraren eta etxekoen partetik.



ARRASATE
Jonathan Domínguez
Ekainaren 12an, 15 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Oier Beitia
Ekainaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Beitia-Zelaitxo familiaren partetik.



ARRASATE
Maider Gardoki
Ekainaren 14an, 2 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Andoni Varela
Ekainaren 5ean, 7 urte.
Musu handi bat! Aita, ama eta Patrizia.



ARRASATE
Zorionak, amama!
Berandu bada ere, muxu handi bat eta zorionak! Julen eta Antxon.



ARRASATE
Julen Galartza
Ekainaren 13an, 4 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.




ARRASATE
Aitor Gorroñoigoitia
Ekainaren 16an, 2 urte.
Zorionak! Plazako lagunik.



ARRASATE
Ekiñe Lasaga
Ekainaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! Beitia-Ibabe familiaren partetik.



ARRASATE
Leire Balentziaga
Ekainaren 11n, 6 urte. Zorionak, Lourdesen eta Jesusen partetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora Lizentziaduna 31.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **ekainaren 15etik 21era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu ARRASATE PRESSko egoitzan.**

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko ekainaren 14a / 31. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Aramaioar bat bigarren geratu Bertso Txapelketan

UBANE MADERA

Mikel Ruiz de Azua aramaioarrek bigarren postua eskuratu zuen Arabako Eskola Arteko Bertsolari Txapelketan. Hain zuzen ere, bertso-paperean izan zen bigarren Mikel.

Manex Agirre aramaioarrek argi asko utzi zuen Aramaion dagoen bertsozaletasuna ez dela nolana nahikoa. Orain, eta horren irudi, beste aramaioar batek Arabako Eskola Arteko Bertsolari Txapelketan bigarren saria irabazi zuen zapatuan jokatu zen finalean. Mikel Ruiz de Azuak bertso-paperean eskuratu zuen bigarren saria, 14 urtetik gorakoetan.

Baina ez zen txapelketa hartan parte hartu zuen aramaioar bakarra izan; izan ere, finalera sei aramaioar iritsi ziren: 14 urtetik beherako taldean, Markel Arriolabengoa, Iraia Beitia, Txomin Elortza eta Igotz Arantzabal izan ziren. 14 urtetik gorakoen artean, berriz, Iker Agirrek eta Idoia Beitiak hartu zuten parte. Hortaz,



ANA MARTIARENA

Mikel Ruiz de Azua aramaioarra gainerako irabazleekin.

ordezkaritza dezentea izan zuten aramaioarrek zapatuan.

Horrez gainera, aipatu beharra dago orain dela zapatu bi, Manex Agirrek beste sari bat

eskuratu zuela. Oraingoan, eta Arabako Bertsolari Txapelketako errebantxan, txapela eskuratu zuten Manexek eta Asier Otamendik, Arabako txapeldunak.



Artium Aramaion

Artium museoaren berri zuzena jaso ahal izan zuten aramaioarrek domekan. Argazkian ikusten duzuen moduan, Arabako herrietan egiten ari den ibilbideari jarraituz, Aramaion egon zen museoaren autobusa. Hezkuntza Saileko hezitzaile Itziar Martijak adierazitakoaren arabera, besteak beste, "Artium museoa erakusteko bideo bat eta katalogoak ditugu".

HERRITARREN HITZA / Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

Oporrak ere euskaraz

Azken aldian Euskal Telebistan aurrez aurre jarri zaigun *lehen hitza euskaraz* leloaren bidez, euskaraz dakigunoi harremanak beti euskaraz hastera egiten digute dei.

Mezu argi horren bidez urteetan zehar, erdaldunen eraginez, ezezagunekin topo egitean erdaraz hasteko dugun ohitura aldatu lortu nahi da.

Hiri handietan nahiz herri txikiengan, gure lehen berbak euskaraz egin behar ditugula esan gura du. Horrela jokatzuz, jakina, uste dugun baino euskaldun gehiago garelako ikusiko dugu. Usterik gutxien dugunean euskaldunarekin egingo dugu tril edo topo.

Bestalde, euskarari lehentasuna emanaz, erdaldunei kezka

sortuko diegu. Ez diogu esango, lehenago sarri entzun dugun "hable en cristiano" eta horrelakorik, baina bai lehenengo berbak euskaraz egin.

Garrantzi handiko beste dei bat ere egin zaigu Egunkarian: *Gure artean euskaraz*. Oraingo hau euskaldunok gure artean euskara erabiltzera bultzatu guraz datorkigu. Garrantzi handikoak dira batez ere, Aramaio modura, UEMAN sartutako udaletako bizilagunentzat. Betebehar handi bat dugula gogoratzen digute.



"Euskara ahoan ibili munduan esan eta bizi behar dugu"

Horrela ekinez gure herrira datozenak euskaraz egitera animatuko dira aurka joan barik.

Kanpaina hau aurreko bati loturik etorri zaigu, *euskera-rik onena zeurea*. Beti toki ezberdinetako euskaldun guztiok batzen gaituenaren hizkuntza erabiltzera bultzatu gura gaituzte.

Badakizu, bada, udalean, merkatuan, dendan, edo Euskal Herriko edozein lekutan zure lehenengo berbak euskaraz. Aurrekoa euskalduna bada, pozez erantzungo digu. Euskalduna ez bada, ba dela oraindik

euskaraz bizi den pertsonarik ikusiko du; horrek, behar bada, ikasteko gogo sortuko dio. Ez beldurrik izan. Ahalegin txiki hau eginez bazter guztietako euskaldunok elkar ezagutzen eta ulertzen ikasiko dugu eta. Gure artean euskara mota ezberdin ugari izan arren, denok familia berekoak garela ere ikusiko dugu pozez.

Oporrak ate joka ditugunez, ez ahaztu, Euskal Herriko edozein bazterretan, egin lehen berbak euskaraz. Gehienetan, bihotzak zabal-zabal, etxekotzat hartuko zaituzte. Orain dela urte batzuk *txapela buruan ibili munduan* eslogana zabaldu zen. Gaur egun *euskara ahoan ibili munduan* esan eta bizi behar dugu.

LABUR

Esaldi Lehiaketa antolatu du Udalak lehenengo aldiz

Aramaio Udalak Esaldi Lehiaketa antolatu du *Euskara indartuz Aramaion!!* lelopean. Modalitate bi egongo dira: batetik, jaietan erabiltzeko esaldia gura du Udalak. Horrekin, pegatinak, jaietako egitaraua, eta antzerakoak ateratzeko asmoa du; eta bestetik, urte osoko ekintzetan erabiltzeko esaldia ere gura dute, "eguneroko bizitzan euskara erabiltzera bultzatuko duena". 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte lehiaketan, eta, gutxienez, esaldi bi bidali beharko dira. Ekainaren 18ra arteko epea egongo da lanak emateko.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Botika | 945 44 50 03 |
| Udaletxea | 945 44 50 16 |
| Erzaizta (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martin Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zubiako Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|----------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 12:00 | 12:15 | 13:00 |
| 15:20 | 15:35 | 16:20 |
| 20:30 | 20:45 | |
| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
| 08:30 | 09:15 | 09:30 |
| 13:10 | 13:50 | 14:05 |
| | 17:00 | 17:15 |
| 19:30 | 20:15 | 20:30 |

OHARRAK

BIHAR, ZUBEROARA

Hogeita hamar lagun pasatxoko taldea abiatuko da bihar, zapatua, Zuberoa aldera. 08:00etan irtengo dira Aramaioko autobus geraldutik. Eta behin Zuberoara iritsitakoan, bi aukera izango dituzte bidaiariek. Gura duenak Kakuetako zintzurak edo haitzarteak ikustera joateko aukera izango du. Eta bestela, bidaiaria lasaigoa gura duenak Maulen geratzeko aukera izango du. Gero, guztiak bazkaltzeko batuko dira Mauleko Herriko Tabernan. Eta arratsaldean, Akerbeltza izeneko garagardo lantegi bat bisitatu gura dute. Pepe Carreterok, Zuberoari laguntzeko taldeko kideak, adierazi digunez, oso egoera ekonomiko eskasean dago Zuberoa. Herri eta hirietako kaleetan argi igartzen ei da hori, "tristura ikusten da nonahi". Horren harira, adierazi digu dagoeneko batu dituztela Zuberoari laguntzeko Aramaiok eman beharreko 1.500 euroak.

ARAMAIOARRAK OMENDUTA

Domekan, Araba Euskaraz jaia ospatuko dute Zigoitian. Besteak beste, 70eko hamarkadan Gasteizen euskararen alde jardun zuen talde bat omenduko dute. Bereziki, Iñaki Oregi, Aramaioko parroko izandakoa. Hain zuzen ere, hark jasoko du saria talde osoaren izenean. Izan ere, Iñakik egindako lanari esker, esaterako, Legutioko eta Ubideako gau-erakundeak jaio ziren. Iñaki Oregirekin batera, Emilio Pérez eta Jon Kortabarria aramaiokarrak ere omenduko dituzte domekan.

GIZARTEA

e-debagoiena egitasmoan parte hartuko du Aramaioko Udalak

Aramaioko Udalaren eskaerarekin bat eginez, e-debagoiena egitasmoa ordezkariek onartu egin dute Aramaio egitasmo horretako kide izateari. Halaxe erabaki zuen e-debagoiena egitasmoa Batzorde Errektoreak. Debagoieneko Mankomunitateak aurkeztu zuen aramaiokarren eskaera. Debagoieneko Mankomunitateko presidente Victoria Gallastegik adierazi digunez, "betidanik izan dugu oso harreman handia Aramaiorekin. Eta nahiz eta ofizialki Mankomunitatean sartu barik egon, beti bultzatu izan dugu Aramaio gure egitasmoan sartzea".

Aramaioko Mankomunitatean sartzeko aukeraren gainean, berriz, Gallastegik adierazi digu ez dakiela noiz iritsiko den aukera hori, bereziki, kontuan hartuta Aramaio Araban dagoela; baina gaineratu digunez, "proiektu orokor bat pentsatzen badugu, Aramaio beti dago barruan".



HERRIKO AULOZETAN

GANTZAGA II

Elizako Lantegi Liburua-n ageri denez, Garratzen, Mamés Ballesteros kanpaigile maisuak elizako kanpaiak urtu egin zituen 1830. urtean. Horretarako lurra "Santa Agedako mugarri gertutik ekarri zuen, Aramaion ez baitzen kanpaien moldeadurarako proportzionatutako lurrik".

Urdingio baserria ezaguna egin zen gerrako kroniketan Santa Kruz apaiza han hartu baitzuten, eta gero, Izpisteko kobazulora eraman zuten. Gaur egun, Santa Kruz apaizaren balkoia moduan ezagutzen da leku hori. Baserriko artzainak eramaten zizkion jakiak eta haren bila zebiltzanen berri ematen zion. Kobazuloa ordu erdira dago.

Eta elizaren ondoan erdi landutako kareharrizko ponte bat dago, harraska edo sarkofago baten antzekoa; herritarren ustez, Antonio Cánovas del Castilloren lantzen ari zen hargina, hain zuzen ere, Angiolillo anarkista italiarrak Cánovas del Castillo erail zuenean, Santa Agedako bainuetxean, 1897an.

"Aramaioko ibarraren iragana eta oraina".

Jesus Maria Elejalde
Plazaola

BOTEPRONTOAN/ Angel Arriolabengoa · Alaiak erretiratuen eta pentsiodunen elkarteko presidentea

"Helburua da denok elkartzeko bidea izatea eta ez dadila inor baztertuta geratu"

Angel Arriolabengoa da oraingo asteko gure berba laguna. Alaiak erretiratuen eta pentsiodunen elkarteko presidentea da orain hiru urte dela. Aurtengoa eta beste urtebete gertzen zaio. Berez, lau urterako aukeratu zuten, baina egoitza berria uste baino beranduago estreinatu dutenez, urtebete gehiagoz jardutea tokatu zaio:

Berrero aurkeztuko zara presidente izateko?

Ez, ez. Gainera, aurkeztu inor ez da egiten, aukeratu egiten gaituzte. Txarrena da batzordekide izateko aukeratzeko bazaituzte, lau urtean lana egin behar dela. Denoi gustatzen zaigu dena eginda topatzea, baina norbaitek lana egin behar izaten du eta hori onartu egin behar da.

Noiz sortu zen Alaiak?

Orain dela 15 urte. Eta gainera, presidente bera egon da azken urteotan. Era berean, bazkide guztiak ez zuten egoitzako giltzarik eta tabernako edariak hartzeko ere beste arau batzuk zeuden. Orain, apur bat aldatu da funtzionamendua. Haiek hasiera eman zioten, bazkideak ere egin zituzten eta tabernarena kenduta, bestela, oraingo antzera ibiltzen ziren: txango-



ak, aste kulturala... Presidentea Margarita Arana zen eta diruzain eta idazkari lanetan Fernando Nafarrate ibiltzen zen; besteak uste dut aldatuz joan direla.

Zenbat lagun zarete gaur egun?

175, gutxi gorabehera. Bazkide izateko baldintzarik zailena da batzordekide aukeratzeko gero, lau urtean lan egin behar dela; bestela, 0,60 euro ordaintzen dira hilean, eta erretiratu edo pentsioduna izan behar da.

Orain arte, beste leku baten egon zarete...

Bai, lehen, hemen bertan geunden, goiko solairuan. Eta hau berritzen ibili diren bi urteetan Ibargoiko etxebizitza baten izan gara. Goiko egoitza behekoaren antzekoa zen, baina hara igotzeko zailtasun handiagoak genituen, jende nagusia izanda...

Gainera, denetik duzue, ezta?

Bai. Norbaitek zerbaite hartzera etorri gura badu, edo trankil jarrita egon gura badu, edo telebista ikusi, musika entzun, zerbaite irakurri...

Orain, hobeto, hortaz?

Bai. Egoitza ere hobeto dauka, Udalarekin oso harreman ona dugu... Oso konforme gaude. Egoitza lehen baino askoz hobeto dago.

Urtean zein ekintza egiten duzue?

Berbaldiak... Ekitaldi nagusia Aste Kulturala da: txangoa egiten dugu (aurten, Chillida-Lekura joango gara, uztailearen 20an), hitzaldiak, bazkaria... Urtean karta-jokoak antolatzen ditugu. Ez dira gauza handiak, azken baten, helburua da denok elkartzeko bidea izatea eta ez dadila inor baztertuta geratu.

Bazabiltzate jaiak prestatzen?

Orain dela urte bi, Udalak herritar guztiendako Karta Txapelketa antolatzeke dirua eman zigun, eta aurten, horrelako proposamenen bat egiten badigu, gertu gaude; horrelakotarako beti prest egoten gara. Herritarrei zerbaite esan gura badiezu...

Gu trankil ibiltzen garela hemen, eta gura duena hona etor dadila.

"Bazkide izateko, 0,60 euro ordaindu behar dira hilean eta erretiratu edo pentsioduna izan"

"Gu trankil ibiltzen gara hemen, eta gura duten guztiak dute hona etortzeko aukera"

ERRETRATUZAHARRA


Aramaioarrak, Arabako txapeldun

Herria aldatu, eta Arrasatera barik, Aramaiora joko dugu oraingo asteen argazki zaharraren atalean. Izan ere, argazkian ikusten duzuen zortziko talde hori Arabako txapelduna izan zen 1962. urtean.

Kontua da Euskadiko Zortziko Txapelketa jokatu zutela urte hartan. Aramaioarrak Araban aurkeztu ziren lehenengo eta, esan bezala, aurreneko postua eskuratu zuten. Ondorioz, Arabako txapeldun izendatu zituzten Arabako kanporaketa hartan. Baina, itxura denez, gero, Bilbon jokatu zen beste kanporaketan ezin izan ziren sailkapenean sartu, arazo teknikoan ondorioz.

Kontuak kontu, zortzikoan lehiaketara aurkeztu zen Aramaioko taldea. Argazkian ikusten duzuen moduan, dotore asko jantzita, gainera. Eta oroitzapenerako argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. Martxoaren 19a zen. Lekua, berriz, Bilboko Albia Koliseoa.

Honako hauek agertzen dira




argazkian, ezkerretik hasita: Sabin Salaberri (zortzikoaren zuzendaria zen Sabin, eta guztiok ezagutzen dugu orain arte egin duen ibilbide musikal luzea), Paco Salaberri da Sabinen

ondokoa, gero, Gerardo Salaberri dator, Paco Izaga ondoren, Victor Mendialdua da hurrengoa, Antón Pol ondokoa, Martin Arana dator gero, haren ondoan Jose Antonio López de

Bergara dago, eta eskuma-eskuman dagoena Fernando Nafarrate da.

Argazkia: Beatriz López de Bergara
Urtea: 1962. urtea



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Udaletxea eta erdiko plaza duela 60 urte

Argazki hau orain dela 60 urte atera zuten, baina badirudi atzokoa dela. Normalean, atal honetan jartzen ditugun argazkien artean aldaketa handiak izaten dira, baina oraingoan, beste aldea ere erakutsi gura izan dugu; hau da, badira gauza batzuk nekez aldatzen direnak. Eta horrek ez dauka zertan txarra izan behar, atzokoa gordetzeak asko balio du-eta.



≈ 1940

Argazki biak bereizteko elementu bakanrenetakoak erdiko plazan dauden harrizko jarlekuak eta piboteak dira.



2002

Udaletzeko kanpoko aldea ez da batere aldatu, baina barruko aldea guztiz eraberritu zuten orain dela urte batzuk, beharra ere bazuen-eta.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

OREKAN DATZA EDERTASUNA

Udari begira taila bat gutxiago jantzi gura baduzu, oraindik garaiz zabilta!
Lirainen bakarrik aurkituko duzu estetika teknika gaurkoenak eta kirol zerbitzu profesionalena



GORPUTZ ETA AURPEGI TRATAMENDUAK

1.- Diagnostikoa

Osasuna eta edertasuna oso pertsonalak direlako, Lirainen hasierako diagnosi zehatzean oinarrituta programa pertsonalizatu bat lantzen dugu, eta emaitza ezin hobekak lortzen ditugu.

2.- Tratamendua

Tratamendu lokala: zitokosmetika
Tratamendu orokorra: balnoterapia, termosaua, drenaje linfatikoa, aparatologia, entzima-osagarriak.

3.- Kontrola eta jarraipena

4.- Finantzaketa

Aurrez %10eko deskontua edo sei hilabetean

KIRURGIA ESTETIKOA (MEDIKU ESTETIZISTA)

- Liposukzioak
- Bularren handitze edo txikitzea
- Laser bidezko depilazioak
- Dietak / Mesoterapia

MIKROPIGMENTAZIOA (MAKILLAJE IRAUNKORRA)

- Minik gabekoa.
- Edozein egoeratarako prest.
- Ezpainak, begiak eta bekarrak.
- Erosotasuna.

SOLARIUMA: ZUTIKAKOA ETA ETZANDAKOA

- 10 saio + 1 doan 54.09 € (9.000 Pta)

KIROL ZERBITZUA

**EKAINEAN ETA UZTAILEAN
MATRIKULARIK GABE!!!**

ZATOZ LEHENBAILEHEN IZENA EMATERA

- AEROBIKA
- STEP
- SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA
- MUSKULAZIOA
- SAUNA
- MAKINA AEROBIKOAK



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRU
EMAKUME-GIMNA

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 52 17



Oraindik ez du GOIENASPORT ikusi.

Bailarako kirola astero begi bistan.

GOIENASPORT

- Astelehenetan, 20:30ean
- Errepikapena martitzenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Julen Iriondo**

